

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2012ko ABENDUAREN 20an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2012ko abenduaren 20an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Aritz Usandizaga Larrañaga
Imanol Aranzabal Lasa


Bere ezin etorria azaltzen dute: Karlos Irazu Muñoa, Jon Tejeria Otermin eta Igor Barandiaran Perez de Arriluzea.

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio:**
 - 2012ko azaroaren 8an egindako ohiko bilkura
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Larraulgo Agiñezabal Handi baserriaren Sorohaundi zelaian, eraikin bat eraikitzeko baimen eskaera, K.I.**
- 4. Larraulgo Udalak, Larraulgo Guraso Elkarteari eginiko eskaeraren erantzunaren berri ematea, hala bada.**
- 5. Larraulgo Udal zerbitzu telematikoetara sarbidea izan eta erabiltzeko erregelamendu arautzailearen baldintzen hasierako onespena, hala bada.**
- 6. Pello Errotako guraso elkarteak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 7. Manuel Larramendi Kultur bazkunari 2012 urteari dagokion ekarpenaren kitapena burutzea, hala badagokio.**
- 8. Gipuzkoashare guifi-net proiektuaren onespena, hala bada.**
- 9. Larraulgo Udaleko langileen abenduko aparteko lansaria ez ordaintzea eta zenbateko hori atxekitu eta ez dispoñitza, hala bada.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

10. DINA 7 Kultur Elkartek aurkezturiko 2012 urteari buruzko Larraulgo Ekomuseoaren memoriaren berri ematea, hala bada.
11. Fakturak eta ordainketak.
12. Beste batzuk.
13. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2012 urteko azaroaren 8ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

18/2012 Alkatetza Ebazpena, azaroaren 9koa, A.A.J. jaunak eginiko eskaera onestea, hau da, Larraulgo liburutegia erabiltzeko baimena ematea eskaturiko eguna eta ordutegian, ebazten duena.

19/2012 Alkatetza Ebazpena, azaroaren 16koa, J.M.I.M. jaunak eginiko eskaera onestea, hau da, Katillu-txulo kultur elkartearen sorreran, Udaletxe honetako artxiboan dagoen dokumentazioaren kopia bat ematea, ebazten duena.


20/2012 Alkatetza Ebazpena, azaroraren 20koa, E.T. andreak eginiko eskaera onestea, hau da, Katillu-txulo kultur elkartearen sorreran, Udaletxe honetako artxiboan dagoen dokumentazioaren kopia bat ematea, ebazten duena.

21/2012 Alkatetza Ebazpena, azaroaren 22koa, P.O.U. andreak eginiko eskaera onestea, hau da, azaroaren 30ean Udaletxeko sarreran jostailu zaharrak biltzeko erabilpena ematea, ebazten duena.

21 bis/2012 Alkatetza Ebazpena, azaroaren 23koa, A.A. jaunari Beobidegain 18-esk.-an egindako ezkutuko obrak gelditzeko agindua ematea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LARRAULGO AGIÑEZABAL HANDI BASERRIAREN SOROHAUNDI ZELAIAN, ERAIKIN BAT ERAIKITZEKO BAIMENA ESKAERA, K.I.

Bertaratuek, aho batez, erabakitzen dute gaia mahai gainean uztea Udal Aholkulari teknikoak eskaturiko dokumentazioa Udaletxe honetan aurkeztu bitartean.

LAUGARREN PUNTUA

LARRAULGO UDALAK, LARRAULGO GURASO ELKARTEARI EGINIKO ESKAERAREN ERANTZUNAREN BERRI EMATEA, HALA BADA

Ikusirik 2012ko azaroaren 8an egindako Udalbatzarrean ondorengo erabakia hartu zela:

“Larraulgo Murgil Guraso Elkarteari, eskolan burutu diren egokitze lanak bukatu ondoren, hauek ordaintzen laguntzeko, egoki deritzon laguntza ekonomikoa eman dezan eskaera luzatzea. Lanen kostua guztira 7.129,90euro izan delarik.”

Ikusirik, Larraulgo Guraso Elkarteak, Udalbatzak eginiko eskaerari ondorengo erantzuna eman diola:

“Udalak Larraulgo ikasgeletan izandako obren gastuen inguruan eginiko jakinarazpenaren (irteera zbk. 159) aurrean Larraulgo Guraso Elkarteak 2012ko abenduaren 12an egindako bileran adostutakoa Larraulgo udal taldeari jakinarazi nahi dio:

AURREKARIAK

1.2012ko udan zehar Larraulgo ikasgeletan egindako lanen inguruan Larraulgo Guraso Elkarteak ez duela lan hauen aukeraketan, eskaeran, eztabaidatzean eta adostasunean parte hartu.

2.Larraulen, Eskola Txikien festan irabazitako dirua Larraulgo herriak azpiegitura mailan izan ditzakeen beharretarako erabiliko dela. Behar hauek aztertu, aukeratu, eztabaidatu eta adosteko lan-talde bat sortuko dela Guraso Elkarte eta Udalaren artean hainbat bileretan adierazi den moduan.


ERABAKIA

1.Larraulgo Guraso Elkarteak ez diola aurre egingo Larraulgo ikasgeletan 2012ko udan eginiko obrek sortutako gastuei.

2.Larraulgo Guraso Elkarteak hitzartutako gastuei soilik aurre egin ahalko diela.

3.Larraulgo Udalak Larraulgo azpiegituren inguruko lan-taldea sortzeko behar larria ikusten badu horrela adieraz diezaiokela Larraulgo Guraso Elkarteari.

4.Erabaki honen berri Larraulgo udal taldeari ematea



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Larraulgo Guraso Elkarteak

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Udalbatza honek, Larraulgo Guraso Elkarteak, Larraulgo Udalak eginiko eskaerari buruzko erantzunaren berri jasotzen du.

BOSTGARREN PUNTUA

LARRAULGO UDAL ZERBITZU TELEMATIKOETARA SARBIDEA IZAN ETA ERABILTZEKO ERREGELAMENDU ARAUTZAILEAREN BALDINTZEN HASIERAKO ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Larraulgo Herritarrak, Larraulgo Udal zerbitzu telematikoetara sarbidea izan eta erabiltzeko erregelamendu arautzailearen baldintzak prestaturik daudela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Larraulgo Udal zerbitzu telematikoetara sarbidea izan eta erabiltzeko erregelamendu arautzaileari hasierako onespena ematea.


BIGARRENA.- Erregimen Lokaleko Oinarrien Lege Arautzailearen 49. Artikularekin bat etorritik, jendaurrean jartzea iragarkia, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hogeita hamar egunetako epean, espedienteaz aztertu eta bidezko alegazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal daitezkeen.

Epe horren barruan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez bada Erregelamendua behin betiko onartutzat emango da eta indarrean sartuko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen legearen 70.2 artikulua ezarritakoaren arabera.

SEIGARREN PUNTUA

PELLO ERROTA GURASO ELKARTEAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Pello Errota Guraso Elkarteak eginiko idatzia, non Larraulgo Udalarik galdetzen die, ea aurten parte hartu behar duten, azken urte hauetan gertatu ohi den bezala Asteasuko Errege kabalgatan, bertan Larraulgo umeak ere, opariak jasotzen dutelarik.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik batzarkide artean adostasun falta dagoela gai honekin. Bozkatu egiten dute, ondorengo delarik emaitza:

Aldeko botoak: 1 (Mujika Alkatea)

Kontrako botoak: 2 (Jauregi eta Usandizaga zinegotziak)

Abstentzioak: 1 (Arantzabal zinegotzia)

Bozketaren emaitza ikusirik, Udalbatza honek, gehiengo soilaz, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Asteasuko Errege kabalgatan parte ez hartzea.

BIGARRENA: Larraulgo herritarrei erabaki honen berri ematea, jakinaraziz, Larraulgo umeak ez dutela eskutizik jasoko Asteasuko Errege kabalgatan opariak jasotzeko.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Pello Errota Guraso Elkarteari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNARI 2012 URTEARI DAGOKION EKARPENAREN KITAPENA BURUTZEA, HALA BADAGOKIO

Ikusirik Manuel Larramendi Kultur Bazkunak aurkeztu duela, 2012 urteari dagokion kitapena.

Ikusirik 2012ko otsailaren 9an eginiko Udalbatzarrean Manuel Larramendi Kultur Bazkunari 1.000 eurotako diru-laguntza ematea erabaki zela. Diru-laguntza osoa 2012ko apirilaren 4ean ordaindu zitzaizlarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:


LEHENA: Manuel Larramendi Kultur Bazkunari jakinaraztea, Larraulgo Udalak, 2012 urteari zegokion diru-laguntza, hau da, 1.000 euro, 2012ko apirilaren 4ean, bere osotasunean, ordaindu zitzaiola.

BIGARRENA: Udalbatza honek, Manuel Larramendi Kultur Bazkunak aurkezturiko 2012 urteari dagokion kitapenaren berri, hartzen duela.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Manuel Larramendi Kultur Bazkunari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

GIPUZKOASHARE GUIFI-NET PROIEKTUAREN ONESPENA, HALA BADA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik Larraulgo herrian sare telematiko aske eta neutral baten garapena egiteko asmoa duela Larraulgo Udalak. Horretarako Gipuzkoashare Elkarteak proiektu bat aurkeztu du Larraulgo Udalean. Proiektuaren garapena gainera Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagunduko du, guztira 4.956,00 euro izango delarik diru-laguntza.

Gaia azterturik, Udalbatzak, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Larraulgo herrian Gipuzkoashare Guifi-net, “herrian sare telematiko aske eta neutral baten garapena” proiektuaren onespena. Bere kostua 6.000,00 euro (BEZ kanpo) direlarik.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

LARRAULGO UDALEKO LANGILEEN ABENDUKO APARTEKO LANSARIA EZ ORDAINTZEA ETA ZENBATEKO HORI ATXEKITU ETA EZ DISPONITZEA, HALA BADA

Idazkariak, 2012/12 Errege Lege dekretuan araututa dagoena betetzeko laburpena egin die mahaikideei, eta guztiek jakinaren gainean geratu ondoren, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa ERABAKI DU :

LEHENA: Abenduari dagozkion, aparteko ordainsaria edo estra, eta lanpostu osagarria edo baliokideak diren ordainsari gehigarrien kentzea.

BIGARRENA: Aurtengo ekitaldian, aipatu ordainsariak ordaintzeko aurreikusitako kredituak ibilgetzera eta beste helburu batera ezin izango dira zuzendu erabakitzea.

HAMARGARREN PUNTUA


DINA 7 KULTUR ELKARTEAK AURKEZTURIKO 2012 URTEARI BURUZKO LARRAULGO EKOMUSEOAREN MEMORIAREN BERRI EMATEA, HALA BADA

Ikusirik DINA 7 Kultur elkarteak aurkezturiko 2012 urteko Larraulgo Ekomuseoaren memoria.

Ikusirik DINA 7 Kultur elkarteak prest dagoela 2013 urtean ere Larraulgo Ekomuseoaren kudeaketarekin jarraitzea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENA: DINA 7 Kultur Elkarteak aurkezturiko 2012 urteko Larraulgo Ekomuseoaren memoria onestea.

BIGARRENA: Larraulgo Udalak onespena ematea, DINA 7 Kultur Elkarteak 2013 urtean Larraulgo Ekomuseoaren kudeaketa eraman dezan, horretarako dagokion hitzarmena sinatuko delarik. Larraulgo Udaleko Alkate-Lehendakaria ahalmentzen delarik aipaturiko hitzarmena sinatu dezan.


HIRUGARRENA: DINA 7 Kultur Elkarteari erabaki hauen berri ematea.

HAMAIKAGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

BABESA SUZAI	328,52
MANPEL	16,70
BERRI LANTEGIA	92,64
KOPIDIN	111,73
FERRETERIA BARBE	25,93
BABESA SUZAI	147,45
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	45,88
UROLA	179,81
GAZTEZULO	20,00
AITZOL	64,96
KIROLZER	135,60
IZFE	393,88
ALKIZAKO UDALA	45,83
KEY-LAN	157,30
EITD	186,34
EUSKALTEL	64,72
EUSKALTEL	0,24
MOVISTAR	101,28
MOVISTAR	155,48
MOVISTAR	20,99
MOVISTAR	90,19
MOVISTAR	18,94
REPSOL	36,66
REPSOL	77,29

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **2.518,36** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HAMABIGARREN PUNTUA

BESTE BATZUK

Ez dira aurkezten.

HAMAHIRUGARREN PUNTUA

ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Ondorengo adierazpen instituzionala aurkezten da:

“Gipuzkoako Alzheimerdunen eta bestelako dementziadunen Senitartekoen eta lagunen Elkarteak (AFAGI) Larraulgo Udalari ondorengo deklarazioarekin bat egitea eskatzen dio:

INSTITUZIO-DEKLARAZIOA

Jakin badakigu Alzheimerra dementzien artean nagusia dela, gaur egun, dementzia mota honen eragina 3,5 milloi pertsonen pairatzen dutela estatu mailan, gaixoak eta hauek zaindu behar dituzten senideak kontuan hartuta.

Jakin badakigu Alzheimerra osasun eta gizarte mailan ematen den arazoa dela, familia delarik zama handiena bere gain hartzen duena.


Jakin badakigu oriandik ez dagoela ez tratamendu eraginkorrik ezta prebentzio sistema egokirik ere gaixotasun larri honen ondorioak mugatzeko.

Jakin badakigu hurrengo hogeitun urtetan gaixotasuna gailenduko dela gaixo kopurua bikoiztuz, batez ere, biztanleriaren bizitza itxaropenaren luzapena dela eta.

Jakin badakigu familia batean Alzheimerrak sortu ditzakeen zuzeneko zein zeharkako gastuak 30.000 eurotik gorakoak izan daitezkeela.

Jakin badakigu gaixo eta senideen beharrei aurre egiteko eskura dauden osasun eta gizarte baliabideak eskasak direla.

Jakin badakigu, Europako Legebiltzarrak, Europako Komisioak eta duela gutxi Munduko Osasun Erakundeak gomendio ezberdinak luzatu dituzten arren, ez daukagula gaixotasun honen kalteei aurre egiteko plan zehatzik.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Biztanleria zahartzen ari dela eta honek dementziaren bat (Alzheimer motakoa batez ere) jasateko dakarren arriskuaren jakitun izanik.

Larraulgo Udalak, aho batez, ondorengoa ERABAKITZEN DU:

*LARRAULGO Udalak, arazo larri honekiko duen kezka adierazi nahi du “**Alzheimerrarekiko Hiri Solidarioa**” izatea erabakiz.*

Honela, ekimen instituzional honekin, LARRAULgo Udalak beste udalerrri batzuentzat adibide izan nahi du eta bide batez, osasun eta gizarte arloetako arazo larri honen inguruko sentsibilizazioa eta gizartearen zein instituzio eta politikarien kontzientziazioa bultzatu.

*Alzheimerrarekiko Hiri Solidario bilakatuz, LARRAULgo Udalak Alzheimerrari buruzko Aliantzak bultzatu duen egitasmoaren alde egiten du. Egitasmo honen **Alzheimerraren inguruko estatu-mailako politika** abian jartzea aldarrikatzen du..”*

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.10 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA